

# *ttipi-ttapa*

1990eko Abuztuak 2

43. zenbakia

dohain banatzen da



**Paul Dutournier:**  
«Serbiziala izatea da  
garrantzitsuena»

# CONSERVAS MARTIKO, S.A.

Ahatetan espezializatuak



ZURE MAHAIRAKO AHATERIK HOBERENA

Ahate-foi

Gibel-gizena

Urdai azpikoa

Ahate-hegalak

Ahate-izterrak

Tfnoa: (948) 63 07 07

BERA



## JAURENA

Sukalde mobleak - elektrogailuak

Rikardo Baroja 12, Tfnoa: 63 07 60 - BERA

# NON-ZER

- 4. Beharrezko telefonoak.
- 5. Agenda.
- 6. Irakurleak mintzo.
- 7. Hontaz eta hartaz.
- 9/27. Herriz-herri; Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Sara, Donamaria-Gaztelu, Elgorriaga, Urda zubi, Goizueta.
- 28. Erreportaia. P. ASTIZ
- 30. Elkarrizketa. J.M. IRIGOIEN
- 32. Kirolak. MATTARI, IBARROLA
- 34. Merkatu Ttikia.

SIADECOkin egin duen ikerketaren arabera L.L.ko langilegoaren %72,6a euskalduna da. Halere, euskararen presentzia lantegian hagitz murrizta da, batez ere, zuzendaritza organuetan. **28. or.**



"Nere idurikoz, printzipala da demostratzea gure anaitasuna ez dela hautsi behar" erran zigun Paul Dutournier Jaunak, sasi-mugaren bi aldeetako harremanaz ari ginela. Paul, Sarako alkatea izana dugu 34 urtez eta pertsonai garrantzitsua ez-bairik gabe **30. or.**

Abuztuaren 2an, eguerdiko 12etan botako den altxaferuarekin batera hasiko dira 5 egun iraunen duten bestak Beran. Erdiko orrialdeetan, egitarauaren xehetasunak ikus ditzakezue. **17-22. orr.**



Sunbillan uztailaren 15ean ospatu zen 1. go Baztan-Bidasoa-Leitzarango Herri Kirol Txapelketaren 1. go Topaketan, Sunbillako taldea atera zen garaile **32. or.**

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortziritako Euskara  
Mankomunitatea  
Nafarroako Gobernu

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkarte, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Goiko Argazkiak, Patxi Larretxea, Mattari eta OMTk

**Inprimategia:** Jomisa (Irun)

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege-Gordailua:** NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen halabeharrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.



## BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa ..... 088

### OSASUN ZENTRUAK

Elizondo ..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 594300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

### KONTSULTAK

Arizkun ..... 587039

Gartzain ..... 580451

Oronotz-Mugaire ..... 592024

Ituren ..... 594183

Sunbilla ..... 594283

Goizueta ..... 514067

Igantzi ..... 637755

Arantza ..... 634131

Bera ..... 630929 / 630036

Etxalar ..... 635105

Urdazubi ..... 599130

### ANBULATORIOAK

Irun ..... 630264 / 621106

### OSPITALEAK

Irungo ospitalea ..... 614444

Nafarroako ospitalea ..... 251500

SSko urgentzi zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

erresidentzia ..... 262700

Gurutze Gorria ..... 226404

### ANBULANTZIAK

Oitz ..... 594242 / 594342

### DYA

Lesaka (larrialdiak) ..... (943) 464622

Elizondo (larrialdiak) ..... 171717

### FUNERARIA

Lesaka ..... 637404

### SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire ..... 592044

### GARRAIOAK

Bidasotarra ..... 630279

Baztanesa ..... 580129

Leizaran ..... 515018

### HIRUGARREN ADINARENDAKO

#### ZENTRUAK:

Elizondo ..... 580730

Lesaka ..... 637154

Bera ..... 630104

### ABERIAK:

Iberduero ..... 594335 / 594336



musika



## The Pretenders

1978. urteko azken hilabetetan sortu zuen Chrissie Hynde The Pretenders deitzen den rock banda. Hamabi urte hauetan 5 diska bertzerik ez dute grabatu, zein baino zein hobea. Urte horietan, zenbait gora behera izan arren, —horien artean, garbiki nola izan zen jakin gabe taldeko bi partaideren heriotza—, musikaren mailan ez dela aunitz nabaritu erran dezakegu.

Orain, diska berri batekin datorkigu neska hau eta bere taldea. PACKED du lan berri honek izena eta egitan lan ona dela!

Chrissie, Ray Daviesen (Kinks) lagun mina da eta beranduago, Jim Ker-ena ere (Simple Minds). Barazkijalea edo begetarianoa azken hogeitau urte hauetan eta bizi guztian, antimilitarista.

Chrissie, bizi diren neska rocker-en artean, hobereena dela erratera ausartuko nintzateke. Itxura gogorra, emankorra, ahots beroa, neurri gabeko energia bere gitarrarekin estzenarioan agertzen denean.

Mariano



**2 ORTZEGUNA**

—Beran, abuztuaren 6a bitarte herriko bestak. Animazioa eta parranda egiteko aukera ugari.

**3 ORTZIRALA**

—Gaztelun, Donamarian, abuztuaren 7a bitarte herriko bestak bizi-bizi.

**4 LARUNBATA**

—Amaiurren, Pilota lekua inauguratzen dutela eta, Gau-pasa ALMEN taldearekin

**5 IGANDEA**

—Amaiurren, goizeko 11etan inaugurazioa eta lunch-a. 11,30etan pilota partidua: Pierola eta Tapia, Otxoa eta Anduezaren kontra. Bi terdian zikiro-jatea.

Arratsaldez musika izanen da.

**10 ORTZIRALA**

—Leitzan, abuztuaren 15a bitarte herriko pestak.

—Sunbillan, abuztuaren 14a bitarte herriko bestak.

**14 ASTEARTEA**

—Goizueta, Zugarramurdi, Etxalar, Arantza, Oronotz-Mugaire, Amaiur, Donamaria, Beintza-Labaien, Zubieta, Ezkurra, Goizueta... eta inguru honetako bertze hainbat herritan bezala, herriko bestak izanen dituzte. Ezin erran beraz, aukerarik ez da goela ongi pasatzeko.

**15 ASTEAZKENA**

—Zubietan, arratsaldeko 7etan "Baztan-Bidasoako Herri Kirol Txapelketaren II. Topaketa (Zubietan, Leitza eta Basaburua).



**2 IGANDEA**

—Donezteben, irailaren 2an, "Zazpi Probintzietako Herri Kirol Txapelketa" ospatuko da. Aukera ezin hobea Euskalerriko Herri Kirolari hoberenak ikusteko!

**DEIALDIAK**

—Bortzirietan, Bortzirietako Kirol Elkarterako, saskibaloitrenadore bat behar da Jubenil talderako. Tfnoa: 63 70 05.

**IKASTAROAK**

—Bortzirietan, Abuztuaren 16tik 30era, karate (haurrak eta helduak) eta iraupen gimnasia (heldu eta jubilatuentzat) apuntatzeko egunak. Tfnoa: 63 70 05. Klaseak irailaren 4ean hasiko dira.

**GOARDIAKO BOTIKAK**

—Abuztuaren 4-5ean, Bera, Doneztebe, eta F. Iturralde (Elizondo).—Abuztuaren 11-12an, Arantza, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo). —Abuztuaren 18-19an Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).—Abuztuaren 25-26an Etxalar, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).



**SANTAMARIA**  
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 59 40 43 - DONEZTEBE



**MALDAERREKA S.A.**

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

**LEGARRA**

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

## Emakumeok besta egiteko eskubidea dugu!

Orain bestaz besta gabiltzala, emakumeok ezin dugu askotan pakean ibili. Eta hemen betiko kontua dator, zenbait gizonek aprobetxatu egiten dute bestak direla eta... konttent gaudela, ea.: beraiek aldi berean mozkorturik ez badaude, mozkortuarena egiten horrela inongo eskrupolorik gabe eskua sartzeko.

Batzuk, erdi monja edo feminista kargante, itxusi y ke no se jama un rosko horietako bat naizela pentsatu duzue baina ez dut uste.

Berriki eta eguerdian, nere bi alabak eskutik nituela eskua sartu zidaten deskaro guziarekin gona azpitik. Zer egin? moskeatzen bazara eta zaplasteko bat ematen badiozu... Ba neska horrek ez daki bromarik aguantatzen!, bestak direla! ea seguro komentatuko luketela, gainera estrecha bat zara.

Zer pentsatuko luke gizon batek hartu eta deskaro guziarekin eskua

sartzen badiot? Erdi mozkortua nago! bestak dira!

Emakumeak bestetan, inongo defentsarik ez daukagu, nahi dutena egin dezakete y a kallar gainera. Lerro hauetatik nere nazkarik haundiena adierazi nahi dut gizonezko horien ganako.

Ane  
15.238.746

*Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izendeituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzetik ez baduzue nahi, ezizen edo izen goitiz argitaratuko genuke.*



**IRUBIDE**

ostatua  
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA

*Doña*

LENTZERIA  
MERTZERIA

Behoko Plaza 8. LESAKA

**FONDA  
XATURETXEA**

Tfnoa.: 63 70 27  
LESAKA

**BEINTZAKO  
OSTATUA**


Tfnoa.: 59 40 14  
BEINTZA - LABAIEN

**ARROZ BERRI**

**Nekazal tresneria**

Ferrari traktoreak,  
18 CVtik 50 CVrakoak

Tfnoa.: (948) 58 10 21 IRURITA



# Bortzirietako Euskara Mankomunitatea (II)


## Elkartasunaren emaitza

Urtez urte sendotzen joan diren Euskara Batzordeetan gero eta garbiago ikusi zen euskarari duintasunezko irtenbide bat emanen bazitzaion, alperrik zela, arazoak berdinak izanik, herri bakoitza bere aldetik aritzea: areago oraindik Bortziritarrok eta Bortzirietako herriek elkarrenganako duten lotura ekonomiko-soziala ikusirik.

Horrela, aurtan bertan euskararen inguruko arazoak bideratuko dituen Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eratu da aipatu Euskara Batzordeen lanari esker.

B.E.M. euskararen inguruko gora beheretan Udal eta herritar guztiak bildu eta koordinatzea helburu duen ente legala dugu.

Erran behar da Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua ez bezala, euskararen indartze, berreskuratze eta normalizatze proiektuan seriooki sartu dela eta aurtengo ekitaldirako 11.798.844 pezetatako aurrekontua onartu du, Nafarroako Gobernuaren 3.055.000 pezetatako laguntzaren ondoan, euskararen inguruan eskualde mailako ekimenak bultzatzeari ekin dio ere. "Egunkaria Sortzen" proiekturako erosi duen akzioa lekuko.



Ekainean, Siadecoren datuekin eta, erakusketa egin zen herriz herri

Eskualde mailako lorpen garrantzitsuenen artean, garrantzitsuena ez errateagatik, Bortzirietako Euskaltegiak, IKASTARIK, B.E.M.-rekin sinatu duen 3 urtetako hitzarmena izanen litzateke; era honetan, Bortziritarrei euskara ikasteko edota alfabetatzeko duintasunezko zerbitzua eta aukera bermatuz. Azpimarratu behar da laguntza Euskaltegiaren zerbitzu eta aurrekontuan baitan egiten dela eta Nafarroako Gobernuaren euskalduntze-alfabetatzeari buruzko politikarekin hausdura bat ematen dela

euskararen irakaskuntza taldeen zenbatekora eta irakaslearen titulazioaren baitara baldintzatu gabe eta eskuladeko mailako beharrei egokituz. Uste dugu Bortzirietan bultzatzen ari garen eskualde mailako funtzionamendua eta lan egiteko modua, imitagarria ez, baina bai erdugarri izan daitekeela zalantzarik gabe bertze Nafar eskualdetarako.

JON GORROTXATEGI  
Bortzirietako Euskara Zerbitzuaren  
arduraduna



# yoan

Zapatadenda

Beraketa, 13 Tfnoa: (943) 62 15 74

IRUN

MEKANOTERAPIA ZENTROA

## LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA

Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESKA

# TXOKO

## ERRETEGIA

Bazkari, afari eta  
gosarjak ematen dira

ITUREN

Tfnoa.: 59 44 91





**\* KIKKUR \***  
**ILEAPAINDEGIA**  
 Bittiria Tfnoa.: 637492 - LESAKA

**OSKORRI  
 LIBURUDENDA**  
 Petrinea Tfnoa.: 592245  
**ORONOTZ-MUGAIRE**

**ESTHER**  
 ATEAK  
 Erakusketa eta salmenta  
 Zarrailak  
 Kuadroen markoak  
 Tfnoa: 63 74 23  
 Zarandia, 5 - LESAKA

**ATERPE**  
**jatetxea**  
 Mendi ibilaldietarako  
 Mountain bike bizikletak  
 alokatzen ditugu  
 tfnoa: 63 41 79  
**ARANTZA**




Ezkontzetako erreportaiak  
 Argazkiak eta bideoa  
 Tfnoa.: 58 01 55  
 Santiago 40  
 ELIZONDO



**IRUÑEA**



**GOIZUETA  
 KIROLAK**  
 Kirolak  
 Mendirako artikuluak  
 Beheko Plaza 10 LESAKA



Forja, Euskal keramika, zumezko mobleak,  
 saskiak, lore lehorrak, artifizialak eta natu-  
 ralak.  
 Koronak, ezkontza lore sortak eta  
 konbidatuei emateko oparitxoak  
*Aurrekontuak, konpromisorik gabe egiten  
 dira*  
 Baratze eta landareen tratamendurako  
 botikak eta ongariak  
 Errepartuak ortziralero egiten dira  
 Baztan - Malerrekan  
 Larunbat arratsaldeetan irekita egonen da  
 Bittiria karrika. Tfnoa: 63 74 94 - LESAKA

**BATZOKI**  
**JATETXEA**  
**OSTATUA**  
 Tfnoa.: 63 79 31  
**Lesaka**



**ZALAIN**  
 KARROZERIAK  
 TXAPA ETA PINTURA  
 Tfnoa: 630 188 BERA

**G.M.G. GAMARGA S.A.**  
**MARMOLAK, GRANITOAK, HAREARRIAK**  
 121 errepide nazionala, Oharrizko bide-gurutzea  
 Tfnoa.: (948) 58 05 43 IRURITA

- ✓ Sukalde eta komunetarako entzimerak
- ✓ Etxe aintzinaldeak eta pieza tikiak orohar
- ✓ Kanposantutarako lanak (Hilariak...)

## Zapalkuntza egunak berriro ezagutu dira herrian

Lau atxilotu eta bortz etxe arakatu (erregistratu)



Prentsaurrekoan, komunikabideetan errandako gezurrak salatu ziren

ROMAN HARRIBILAGA

Kronologikoki, uztailaren 21ean, larunbatez, hasi ziren gertaerak, Jose Luis Etxeberria Lekuona, 22 urteko beratarra eta Josune Terreros Gartzia, 20 urteko lesakarra, arratseko 10,15etan Berarantz zetozelarik Iruñen zeharkatu zitzaizkien bi kotxetik jaitzita polizia talde batek atxilotu eta Donostiako Gobernu Zibilara eramanak izan zirenean, Irungo auzo batetan aurkitutako 150Kgko materialarekin zerikusirik zutelaren salakuntzapean.

Berria ezagutu bezain laster eta Josune non zegoen jakin nahirik, Lesakako Udaltzako zinegotzi bat eta neskaren gurasoak Jose Luis Etxegarai Alkatearengan zuzendu ziren laguntza eske, baina ez zuten espero zutena lortu. Berako Alkateak, Manuel Iriartek berriz, polizia arduradun batekin harremanetan jarri ondoren, bi atxilotzeak baieztatu eta Antiterrorista Legepean Donostiako Gobernu Zibilan inkomuni-

katurik aurkitzen zirela ezagutu ahal izan zuen.

### Berehalako erreakzioak

Atxilotzeek oihartzun zabala izan zuten berehala. Era honetan, Berako Udaltzat astlehenean burututako osoko bilkura arruntean aho batez —Herri Alde4, EA4, eta HB3— honako proposamen hau onartu zuen: *Berako arazoez kezkatuak, kultura, mendi eta gizarteko beste arloetan parte hartzen duen mutila Jose Luis Etxeberria; kasu honen jarraipena egiteko batzorde bat eratu; senitartekoen joan-etorriek sortuko dituzten gastuak ordaintzeko herri kontu bat ireki, udaltzarkide bakoitzak 1.000 pezeta emanaz; Udaltzaga, eritziak eritzi, Estatuko indar armatuek alde egiten baluteke, etengabeki bizi ditugun arazoak ez liratekeela sortuko ohartzen da; orobat, Antiterrorista Legearen aurka akar egin, guztiz antidemokratikoa eta oinarrizko giza eskubideak zauritzen dituelako; eta, zenbait*

*komunikabidek zabalduko gezurrezko, alderdikor eta aldrebestutako informazioak zuzendu asmoz, prentsaurreko bat eskeini.*

### Atxilotze gehiago

Hala ere, atxilotzeak jarraituko dira; horrela, asteartean, goizeko 2ak inguru zirela, Josu Goia Etxeberria, 43 urtekoa eta Berako alkateordea, eta Jose Ramon Zubieta, 22 urteko beratarra ere, poliziak atxilotu egin zituen, beren etxebizitzak arakatu ondoren, Donostiako Gobernu Zibilara eramanaz, Antiterrorista Legea ezarriz, arratsaldeko lehen orduetarako aske uzteko. Egun bererako, Herriko Etxean iragarritako prentsaurrekoan, komunikabideen desinformazioa salatu eta azkeneko atxilotuen gertaerak kontatu ziren. Ondoren, Berako Herriko Etxeko plazan batzarre bat egin zen, baita manifestazioa eta itxialdia ere Herriko Etxean. Batzarrea egiten ari zelarik, DYAn bonba deia jaso zela aitazakiz, hamar polizia-goardia zibila Botxo ostalua eta ondoko etxebizitza arakatzera agertu ziren. Batzarretik alde eginda, jabea azaldu zenean joan egin ziren; behar ziren ikerketak egin ondoren, DYAn ez zela gisa horretako inolako deirik jaso ikasi ahal izan zen.

### “Joselu”k behinbehineko gartzela

Azken berriek diotenez, Jose Luis Etxeberriari Uztailaren 25ean, asteazkenean Madrilgo Entzutegiko epailearen aurretik pasatu eta gero behinbehineko gartzela zigorra eman zaio, Carabanchelera bidaliz, tratatu txarrak salatu dituelarik Berakoak.

## LESAKA

Komunalen  
arazoa


M.K.T.

Aspaldixko ez genuen Udaleko akta bat irakurtzen eta berriak handik edo hemendik bildu behar... Eskuardean dugun honetan zerbait interesgarri aurkitu dugu, baina komunalen arazo honetan eman zen eztabaida farregarri ez bada kuriosoa behinik behin bai.

Igantziko Udalak bidalitako idatzia zegoen aztergai, idatzi honetan komunalen arazoa dela eta adostasuna eskatzen zuten, hau da, Igantziko Udalak egindako gestioei. Alkateak Udal baten barrengo gaia zela, Udala eta bere herritarren artekoa alegia, eta honetan ez zela sartu behar, zioen.

EAKo Irurtzun jaunak, Igantziko txostena onartzen dutela eta Lesakan behin betirako, gaiari heldu behar zaiola erran zuen.

Lehen aipatutako eztabaida kurioso hori eman zen ondoren eta inor mintzeko asmorik gabe hemen doazkizue zenbait entresaka.



Alkateak Irurtzuni: «...batzorde-tara joateko! behin eta berriro errandion bezala...». Irurtzun jaunak alkateari: «...akordioa bete behar du Alkateak eta ez berak ohitura duen bezala partikularki gaiari loturiko gestioak egin...»

Alkateak Irurtzuni: «...akordioa mendi batzordea abisatzea zen eta ez Irurtzun jauna...». Irurtzunek alkateri: «...alkatea bere tiestotik atera da, edozein gaiaz enteratzeko Udalera joaten naiz...» Alkateak Irurtzuni: «...Irurtzun jauna tiesto batetan

landatua dagoela; nik ez nekien...». Eta horrelakoak daude akta famatu honetan, beraz irri pixkat egin nahi duenak honen irakurketa gomendatzen diot. Harira joanda, alkateak gai honek ukitzen duen herritarra deitzen du Herrikoetxetik ager dadin arazoa konpontzeko. HBko zinegotzia den Maritxalarrek botaziora eramatea Igantziko Udalaren eskaera proposatzen du, botazioa egin ondoren emaitza hau eman zen HB eta EA proposamenaren alde PNV kontra.

## ETXALAR

## Hiltegi edo mataderoa itxi digute

PELLO APEZETXEA

Osasun arazoietan oinarriturik, hainbat herritako hiltegiak ixtea agindu du Nafarroako Gobernuak, haien artean bat Etxalarkoa. Orain abere, behi nahiz aretxeren bat hiltzekotan, Donostiara edota Iruñera jo beharra dago, legearten arabera. Bata eta bertzea nahiko urrun geldi-

tzen direnez. Bidasoa alderako hiltegi bat bederen paratzearen bila dabiltza inguru honetako Udalak.

Eskola berria eta  
kirol-lekua

Ikasturtea bukatzearekin, geletako tresneria eta materialea eskola berrira garraiatu dute, irailerako

horrela prest-prest egonen delarik. Sarrerak eta ingurua moldatzeaz gain, 36 metro luze eta 18 zabaleko kirol edo deportetarako lekua burutu da, zementozko zola duena. Ez daukate aukera txarra gure haurrek, gimnasia eta kirol mota ugari landu

(bertze aldean segitzen du)





ahal izateko, pilota plazaz ere urte guzian baliatzen ahal direla ohartzen bagara, estalia egotean, orain dagoen bezala.

### Txistulari egunean talde ederra bildu zen

Bai, San Juan egunak bildu zituen, *Txistulari eguna* zela-ta, herriko txistulari gehienak, gehixeago edo gutxiago txistua erabiltzen dakitenak, alegia, arrazoi batengatik edo bertengatik jotzerik izan ez zutenak ere izan zirelarik. Hala ere, 35 txistulari eta 4 atabalarik herriari itzulia eman zioten, plazan bazkaltzera berrogeitaseitaraino bertaratu zirelarik, aintzineko *ttipi-ttapa*ko argazkian ikusten ahal denez.

### Erakusketa interesgarriak plazan

*Kultur egunak* en egun nagusian, ekainaren 24ean, erakusketa hirukoitza ikusteko aukera izan genuen. *Euskararen egoera Bortzirietan*, Bortzirietako Euskar Mankomunita-



*Kultur Egunean, Ipuin Lehiaketan sarituak izan zirenak*

teak antolatua, eduki bera duen liburuxka dotorea zabaldu ere egin zirelarik. Eskola eta ikastolako hurrek burututako marrazki eta eskulan saila izan zen beste erakusgaia, bere grazi eta kolore biziz ingurua jantzi zuena. Herriko etxetatik bildutako lan tresna, ontzi, altzari edo mueble multzoa eskeini zitzaigun, hirugarren erakusketan, gure begien asega-

rri. Begiez gainera bihotza ere pozten zuen hainbat gauza interesgarri ikusteak, gure aintzinekoengandik hartuak eta batzutan aski estimatu ez ditugunak. Laudatzekoa, egitan, hiru erakusketa hauen egile eta antolatuzaileen lana, baita beren etxeko gauzak uzteko hogeitamazazpi familiak agertu zuten borondatea.

## IGANTZI

### Udalak 3 langile kontratatu

OSKAR TXOPERENA

Uztailaren 17an egindako udalbatzan bertze batzuren artean 3 langile kontratatzeke erabakia hartu zen. Herriko argia zabaltzeko egin zen proiektuan zenbait gauza ongi osaturik ez zeudela ikusirik hartu da erabakia.

Bando baten bidez zabaldu zen lan hau egiteko posibilitatea eta hasiera batean bi lagun kontratatzeke ideia baldin bazen hiru agertu ziren eta lana bukatu arteko kontratua egin zitzaien.

Hauexek dira lanean ari direnak:

Andres Mitxelena, Bittor Txoperena eta Andres Zelaieta.

### Hiru hilabetetako prorroga "Convenio transaccional de helechales" delakoan

Nafarroako Gobernuako mendi saileko adituek aholkaturik hiru hilabetez atzeratu da *convenio* delako hori baimena banan banan emateko epea. Hau da Udalak onartutako bertze puntu bat eta arrazoia udaran lan hau egiteko posibilitaterik ez izatea, mendi saileko adituen alde tik jakina, eta baita ere oraindik zenbait eremu finkatzeko dagoela.

Beraz, abuztuaren 8an izan beharrean epea azaroaren 8an izanen da orain.

### Igantzi, alde guztietatik obraz inguraturik

Lehen hasiko obrekin aski ez bagenuen oraingoan izugarritzko saltsa armatu digute errepide nagusian. Bentatik pasatzen den errepide badiurdi azkenean lehendabiziko pisura iritsiko dela zenbait etxetan. Jakina da ez dela inoiz lehena go dagoen zolua jeisten eta urteak


(bertze aldean segitzen du)



kan, urteak etorri beti gainera botaz zugarritzko altura hartzen ari da repidea herrirka hauetan. Honek akarzkien ondorioak badakizkizue: txetik ateratzerakoan eskailera aundi bat igo behar izatea eta eua egiten duenean ura etxe barrura.

Obra honetaz aparte bere bidetik arraitzen dute argia, bide moldatze ta gainerako obrak.

*Etxe berriak ere ari dituzte egiten*



## ARANTZA

### Hontaz eta hartaz solasean


ION LARRETxea

Uda heldu zaigu eta berarekin beroa eta eguraldi ederra. Maiatz beharrik —lehorra zelako eta...— txarrik etorri baziren ere gerora euria ausarki egin zuen eta badirudi bigarrenen kortea ederragoa datorrela; beraz, baserritarrak kontent.

Haurrak ere gustora aski dabilta eguraldi eder hauekin, autobus bat bete bete joaten bait da Berara, egunero, igeriketan ibiltzera. Igerian ikasi eta ongi pasatu ez da plan txarra, alajaina!

Orain dela hilabete bat gutti goiti beheti istripu baten berriak asaldatu gintuen aranaztar guztiak. Mattin eta Juanitok elkarru sekulako danbadako eman omen ziotela. Hasieran euren osasuna ere arriskuan egon zen bainan dagoeneko arriskutik kanpo osatzeko bidean, etxean aurkitzen dira biak. Aunitz pozten gara berriro herrian aurkitzeaz eta laister erabat senda daitezen desio diegu bie.

Bidea ere, herrirako bidea zabalitzen ari digute, Berrizaundik Arantzara dauden kurbarik arriskutsuenak zabalduko dituzte eta badirudi



*Berako Igerilekuan freskatzen*

bidea dexente hobetuko dutela.

Aurtengoan ere besta ederrak izanen omen ditugu bainan hori hurrengo *ttipi-ttapan* erranen dizuegu.

#### Udal-lanpostuetan euskara eskatzearen aldeko mozioa onartu da

Nafarroako Parlamentuan eztabaidatzen ari den Udal Administrazioen Foru Legearen Proiektua dela eta, zera onartu da:

1.a: Nafartar guztion ondare kulturala den euskararen berreskuraparen aldeko lanetan parte hartzeko asmoa azaltzea.

2.a: Nafarroako Parlamentuan dauden talde politikoei udal autonomia errespetatu dezaten eskatzea, entitate lokal bakoitzari baimenduz euskararen ezaguera zein lanpostutan izanen den beharrezkoa erabakitzearen.

3.a: Akordioa, Nafarroako Parlamentura bidaltzera.

## Udalak hiru langile hartuko

IBAN ISASI


Berriro ere herrian egin behar diren zenbait lan egiteko, udalak hiru langile hartu ditu INEMen bitartez. Aurretik, abenduan hain zuzen ere, bertze lau langile hartu zituen beretzat lan egiteko. Orduan, bertzeak bertze, Elizbidearen mol-daketa, Itturnaldetik datorren erre-karen garbiketa eta Lasagan eta Aurtitz elkartzen dituen Argisurra-ko bidearen hobetze lanak egin ziren.

### Denda berria

“Bereau Janari denda” izena darama denda berri honek. Cristina Juankorenaren izenean jarria dago eta “Vivo” supermerkatu ka-tearen barnean aurkitzen da. Erran behar, aurreko denda zegoen toki berean paratu dutela; hau da, Tre-senea etxearen behean.

### Bestak

Iturengo bestak abudo aski pa-satu zaizkigu. Erran genezake aur-




Zorigaitzezko istripuarengatik, herri bazkaria suspenditu egin zen

tengo bestek jendearen partehartzean arrakasta izugarria lortu dutela. Aurretik, ohizkoa den diru bilketa egin zen Ituren eta Lasaga auzoetan eta horretatik 143.500 pzta. atera direla, inoiz baino gehiago. Iaz, 81.000 pzta bertzerik ez bait ziren atera. 15ean 3. ikurriñaren eguna ospatu zen baina egun honek itzal bat eduki zuen zo-rigaitzez; bertako gazte batek (Got-

zon Bazterrikak), kotxe istripua izan baitzuen (hemendik, berehala hobet-zeko desioa bidaltzen diogu). Egun honetan iragarrita zegoen joaldunen ekitaldia suspenditu egin zen istri-puarengatik. Herri kirolak bai ospa-tu zirela eta aizkora apostuan Zubie-tarrek (Mindegia eta Loiarte) Ituren-darrei (Gorosterrazu eta Fagoaga) irabazi zietelarik.

## BEINTZA-LABAIEN



### Bestak

Abuztuak 4, Larunbata

Arratsaldeko 8etan: Su ziria, txistulariak kalean zehar ibiliko dira. Gaueko 10etan: Baztan-zopak, Heriko Ostatuan. 12etatik-3etara: Dantzaldia NOCHE Y DIA taldearekin, Beintzako Auzoan.

(bertze aldean segitzen du)





*Abuztuak 5, Igandea*

**Goizeko 10etan:** Argi-soinua kalean zehar. **12etan:** Meza Nagusia. **Eguerdian:** Bertsolariak. **Arratsaldeko 7,30etan:** Aizkora-apustua; egin beharreko lana: Kana erdiko enbor bana, erlojuaren aurka, Kana erdiko enbor bana, golpetara, Kana erdiko 12 enbor, bikoteka. **Aizkolariak:** Larretxea eta Mindegia, arrospide eta Olasagastiren aurka. **8,30etatik-10,30etara:** Dan-

tzaldia NOCHE Y DIA taldearekin. Labaingo plazan.

*Abuztuak 6, Astelehena*

**Goizeko 10etan:** Argi-soinuak. **11etan:** Haur jolasak. **Arratsaldeko 5etan:** Beintzako ostatuan Mus txapelketa. **Arratsaldez eta gauetz:** Dantzaldia, NOCHE Y DIA taldearekin, Beintzako plazan.

*Abuztuak 7, Asteartea*

**Goizeko 10etan:** Argi-soinuak.

**11etan:** Plater tiroketa. **Arratsaldeko 7etan:** Herri Kirolak. **Arratsaldez eta gauetz:** Dantzaldia YATAGAN taldearekin, Labaingo Plazan.

*Abuztuak 8, Asteazkena*

**Goizeko 10etan:** Argi-soinuak. **12etan:** Aizkora-apustua. Herritarrek parte hartuko dute. **2etan:** Zikiro-jatea. **Arratsaldez eta gauetz:** Dantzaldia, YATAGAN taldearekin, Beintzako Plazan.

**GAZTELU****Gazteluko bestak**

TXEMA ALDABE

*Abuztuak 3, Ortzirala*

**Arratsaldeko 7etan:** Altzaferua, txistulariak, Ondoren Pazin-zopak Herriko ostatuan.

*Abuztuak 4, Larunbata*

Domingo eguna

**Goizeko 10etan:** Diana. **11,30etan:** Meza Nagusia Udal Korporazioarekin. Ondoren Herriko ostatuan salda. **1etan:** Kontzertua. **Arratsaldeko 4etan:** Gaztelu-Donamariako Plater tiroketa txapelketa. **8etatik- 10,30etara:** Dantzaldia KAÑABERAK taldearekin. **Gaue-**

**ko 12etatik-6etara:** Gau pasa.

*Abuztuak 5, Igandea*

**Goizeko 10etan:** Meza Nagusia. **11etan:** Diana. **12,30etan:** Aizkora apostua; Mikel Mindegia eta Jabier Mindegia, Larretxea anaien kontra. **1,30etan:** Kontzertua. **Arratsaldeko 5etan:** Pilota partidua; Altzugarai eta Mitxeo, Gamio eta Mitxeoren aurka. **6etan:** Saski baloi partidua; herrikoak kolonietan daudenen kontra. **Arratsaldez eta gauetz:** Dantzaldia KAÑABERAK taldearekin.

*Abuztuak 6, Astelehena*

Haurren Eguna

**Goizeko 10etan:** Diana. **11etan:** Haurrendako jokoak. **12etan:** Mus txapelketa. **1etan:**

Kontzertoa. **Arratsaldeko 4etan:** Haurrendako jokoak. **6etan:** Pala txapelketa; Sagardia F. eta Oteiza, Sagardia C. eta Sarratearen kontra. **7etan:** Herriko Aizkora apustua. **Arratsaldez eta gauetz:** Dantzaldia KAÑABERAK taldearekin.

*Abuztuak 7, Asteartea*

Herrikoen Eguna

**Goizeko 10etan:** Diana. **1etan:** Kontzertoa. **1,30etan:** Kolonietako antolatutako bertso saio berezia. **2,30etan:** Herri Bazkaria. **Arratsaldeko 6etan:** Herritarren arteko jokoak. **8etatik 10etara:** Dantzaldia. **Gaueko 11etan:** Herri afaria. **1etan:** Kantzontzillo eta braga lasterketa. **12etan:** Dantzaldia eta aurtengo besten bukaera.

**ZUBIETA**

JUAINAS


Bero izugarria, kristoren be-roa... Euskadi Tropikalak!. Haritzak gaitza dute. Hemendik aurrera lantatu beharko dira... palmondoak... egunaz, bakoitza bere itzalean...

gauaz: juerga. Zubietako gazteak gaupasa markak hausten saiatzen dira eta laister xehetuko dituzte, martxa honetan... baina gaupasa gutxi dela pentsatu dute eta, orain, nola izan den inork ez dakidala, gaukirola modan paratu dute, astegunez herri kirola eta gaupasaren kirolara-

ko entrenamendu aproposa **Zubietta la nuit, edo Zubietako gaua** ospatzen omen da kasik gauero, ondorio txarrak ekar ditzaken algarra. Diotenez —esaten baldin bada

(bertze aldean segitzen du)





zertxobait egonen da uholdean—batean baloia leihotik sartzen da, hurrengoan lo beharra dutenek bal-koira atera beharra... frontoia kon-pontzearekin alogenoak ez dituzte paratuko, bestela, badugu haserre motibo handia. Eta hagitz ongi da-kizue haserretik boxeora zubi txar eta motza ohitzen dugula... amarji-

nak bertan dira... bota dezagun fies-ta pakean! Errudunak, dena den, ez daude oso lasai. Entzun, entzuten da Ayuntamentutik multak paratzeko asmotan omen daudela... egia izan-en ote da? Jakinen da! Dagoeneko argitu ez baldin bada...

Argitu, akklaratu edo akklaratzeko bidean jarriko gara, suerterik izanez

gero, Sean, Ayuntamentuak deituta-ko **Batzarrean**. Beste gauzen artean elektrifikazioaren afera tratatu-ko da. Iberduerori eman behar zaion ala ez. Erreferendum-a prestatzen.


**Fiestak** prestatze artakan gauza serioak... Atzendu gabel!... Fiesta giroa berotzen joateko aurreko aste-buruan "Ronda de Verano"ko aktua-zioa egonen da, antzerki eta peliku-larekin.

Fiestaren programa hor nonbai-ten topatuko duzue, baina, hortik aparte, abisu bat eman nahi dizuet: Zubietako korrespontsala argazkila-ri txar-txarra denez gero eta iraille-ko lehen alcan ttipi-ttapakoez fies-tetako argazkiak argitaratu nahian dabilzanez, zera pentsatu dut, abuz-tuaren 25an, Errandonean, erakuske-ta bat antolatuko dugu. Argazki onenak aukeratu eta dozena erdi bat bidaltzeko aldizkarira, eta beraiek gustokoenak argitara ditzaten.

## GOIZUETA

### Goi mailako ikasketak ugaritzen

Urte honetan 73 ikasle kanpoko ikastetxeetan aritu dira



Urumean arrantzan

P. A.

Orain dela urte gutxi, herriko eskolan hamalau urteak betez geroz, ume gehienek ikasketak bukatutzat ematen bazituzten ere, azkenaldian ikasketa urteak luzatzen joan dira. Momentu honetan 73 gazte goizue-tar dira kanpoko ikastetxeetan da-biltzanak: Batxilergoa burutzen 34, Hezkuntza Profesionala 17 eta Uni-bertsitatean 22. Batxilergo ikasleak,

(bertze aldean segitzen du)



ia denak, Donostian ari dira, Iruñeko eta Irungo baten bat ezik. Hezkuntza Profesionalekoak sakabana-tuagoak daude: Donostian 6, Hernanin 4, Iruñean 1, Urnietan 2, Oronozen 2, Andoainen 2. Donostiako Unibertsitateak biltzen ditu 15 ikasle, beste 7 Iruñekora doazelarik. Azken hauetatik 1 medikuntza egiten ari da, 4 farmazia, 1 arkitektura, 2 magistaritza, 2 euskal filologia, 6 enpresarialak, 4 ingenieritza eta 2 turismoa.

### Mendi eta Lurren Katastro berria

Herri barneko etxe eta baratzen katastroa herritu den bezala, beste lur eta mendien katastroa ere zuzendu asmoz dabil Nafarroako Gobernuak, errejistroa eta balorapena gaur-

kotuz. Horretan laguntzeko sortu berria da Batzorde Misto izeneko taldea. Gobernuak hiru partaidek eta Udaleko bik osatzen dutena. Nafarroako Gobernuak dagoeneko egina daukan balorapena, Udalbatzak (Aiuntamentuak) begiratu behar du orain, bidezko idurituz gero, onetsi dezan. Ondoren herritar guzietan agertuko zaie, erreklamaziorik ote den ikusteko.

### Dantzari taldea Reus-era

Uztailaren 27an, ostirala, aterazten Dantzari Taldea, 35 lagun denera. Kataluniako Reus hirira. Umorre Ona elkartearen babesean biziki saiatzen den talde horrek larunbatean eman zuen bere dantzaldia, igandez Goizuetara itzuliz. Elkartrukaketa sistemaz baliatuz. Reustar

dantzariak Goizuetan ikusi ahal izango ditugu, irailean seguro aski.

### Hiltegia edo mataderoa ixteko agindua

Nafarroako Gobernuak eman omen du agindu hori, nahiz eta oraindik ez den Udaletxe guzietara ailegatu. Izan ere, herri frango baitira itxi beharrean aurkitzen direnak, lekuak ez daudela osasun baldintza egokitan eta. Gure herriko hiltegian ehun bat zekor hil dira azken urteetan, eta beste hainbeste izan daitezke, gutxi gora-behera, zerri eta arku-meak bat eginda. Etorkizunean, Lekunberrira edo Donostiara eramatea beste aukerarik ez da gelditzen. Donostiatik bertan hildakoa ekartzea izanen delarik egokiena bada.

## SARA

### Sarako Lezea

OLAIN ELKARTEA

Leze hauek merexi dute aipamen bat.

XIX. mendean, jadanik ezagutuak ziren, bainan mende hunen has-tapenean dute ardietsi garrantzia Castilla familiari esker. Duela hamabortz bat urte, Sarako Herriko Etxeak hauen kudeatzea bere gain hartzen zuen eta 1987an erabaki zuen lezeak teknika berrien bidez apailatzea. Erran behar da ongi helduak direla. Berritze hauen ondorioak ez dira gutiestekoak. Iaz, 1898an —70.000 bat— hirurogei-tahamar bat mila— jende ibili da, Sarako lezeetan eta aurten ere ez dira gutiago izanen. Ahatik, ohar ttiki bat nahi ginuke egin: bisita



Sarako lezea

astetik burura elektronikaren gain da bai argi, soinu eta argazki jokoentzat. Xehetasunak ere ahoz zabalduak dira, zinta baten bidez. Horiek frantsesez dira bakarrik eta gure ustez euskararen baztertzea kasu huntan huts haundi bat da zeren, ez ote dira lezeak gure arbasoen bizi-

tegiak izanak. Menturaz lehen biztanle horietarik heldu gira. Beraz ez ote luke euskerak merexi eta zor zaion lekua bereskuratu behar?...

Agian gure oharra emankor gertatuko da.



# Berako bestak

## Egitaraua



Erraldoiak eta buruhaundiak karriz karriz ibiliko dira bestetan

**Abuztuak 2, ortzeguna**

**Goizeko 12etan:** Altxaferuen botatzea Herriko Etxetik.

Ondotik, erraldoiak eta buruhaundiak karriz karriz ibiliko dira LOS INCANSABLES Txarangaekin.

**Arratsaldeko 4etan:** Haurrentzat jokoak eskolatan eta futbol zelaian.

**5,30etan:** "Okalarre" Mendi Refugioaren inaugurazioa.

**7etan:** Txistularien ibilaldia.

**8,30etan:** Gure Txokoako dantzarien dantza saioa Eztegarra Pilotalekuan.

**12etatik aurrera:** Dantzaldia GAUBELAekin Berako Plazan.

**Abuztuak 3, ortzirala**

**Goizeko 9etan,** herriko txistulariek alborada joko dute.

ES

CAJA LABORAL (Ψ) EUSKADIKO KUTXA



## Elkartasunezko jai-giroan!

Alaitasuna, poza, jolasa eta ilusioak gainezka dauzkagun une honetan, Herriarengandik hurbil egon nahi dugu. Herriaren zati bat sentitzen garelako. Horregatik, festa-giroan elkarturik, egun alaiak gozateko aukera, guztiona izan dadila.

**Euskadiko  
Kutxa**



# herriz herri, bestaz besta

10.30etan, Udalbatza, txistulariak, makildantzariak eta Berako banderak eramanez, Herriko Etxetik Meza Lagusira abiatuko dira. Meza ondotik "Gure Txokoa" dantzari taldeak Mutildantzak eta Bordondantza dantzatuko dute. Gero **12.30etan** **LOPATEGI** bertsolariak eta trikitilariak, **13.30etan**: Kalezira Lesa-riako Akordeoi Orkestarekin. **14.30etan**: Gure Txokoako dantzariak Aurre-ua dantzatuko dute Berako Plazan. **15.30etan**: Eztegarra pilotalekuan, palaz, profesionalen pilota partiduak San-urjo, Lizardi, Alustiza, Arribilla-za...) **8etatik 10etara eta 12etatik 14etara**: Dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin. **11.30etan**: Artifiziozko suak Futbol Zelaian.



San Esteban egunean, Mutildantzak eta Bordondantza Berako Plazan

**Abuztuak 4, larunbata**  
**9etan**: Trikitilari eta Gaitariak Sus-  
peltiki eta Garaitarres alaituko dute.

**10.30etan**: Txirrindulari saria  
"jubeni" entzako C.C. Beratarrak  
antolatua.

ES

## **CARE** Saneamenduak

Mobleak eta bainurako tresnak  
Iturgintza eta kalefakzioa

Legia 34 — BERA — Tfnoa: 63 04 87

## **PIZZIO OSTATUA**

Tfnoa.: 63 07 88  
Altzate - BERA

## GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

## **ETXEGARAI** Telebistak eta Bideoak

Antena kolektiboak eta  
banakakoak

ELEKTROGAILUAK

BIDEO KLUBA

konponketa tailerra

Eztegara, 4 Tfnoa: 63 05 70 BERA

# **FOTO GOIKO**

- BODA ERREPORTAIK, ARGAZKIETAN ETA BIDEOAN
- Komunioetako oroigarriak
- Kolore eta zuri-beltzeko argazkien errebelatzea
- Argazkilaritza industriala
- Karnet argazkiak koloretan momentuan
- Argazki materiale salmenta
- Fax zerbitzua bidaltzeko eta hartzeko

Altzate 36 - Tfnoa.: 63 05 15

**BERA**

# Berako bestak



Buruhaundiak eta erraldoiak Alzate karrikan

**11etatik 1,30etara:** Motoak haurrentzako Futbol zelaian. **12,30etan** Erraldoiak eta buru-

haundiak, Herriko Plazatik Agerraino. **4etatik 7,30etara** Motoak haurrentzako Futbol Zelaian.

**4,30etan** Gure Txokoak antolatuta IX. Txirrindulari lasterketa saria haurrentzat (Alzate-Lamixene). **6etan:** Eskuzko Pilota partiduak Eztegarra Pilotalekuan -profesionalak **7,30etan:** Migattu adar borobilduak Berako Plazan LOS INCANSABLESekin. **9 - 9,30ak** inguruan Dantza Popularrak Alzateko Plazan. Ondotik suzko-zezena. **11,30etan:** Nafarroako Jotak Alzateko Plazan Nagore Anaiekin. **12etatik aurrera:** Dantzaldia TTURRUTTAK taldearekin.

**Abuztuak 5, igandea**

**9etan:** Gaitariak eta Trikitilariak Zalain-Alkaiaga eta Dornaku auzoan. **10etan:** Recorrido de caza Gran Premio San Esteban

137



Estetika - Solarium-a

**GIMNASIOA**

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

**SAROBÉ**  
**Okindegia**

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



Ibardin gaina - BERA



COMPAÑIA VASCONGADA  
DE SEGUROS  
Y REASEGUROS, S.A.

JAVIER PEREZ DE AZPEITIA

Eztegara Pasealekua 8

Tfnoa.: 63 03 29 - BERA



# herriz herri, bestaz besta

uniagan. 10,30etan: Eztegaratialekuan eskuzko partiduak. 12,30etatik 7ak arteHaur jokoak Alateko pilotalekuan. 12,30etan aldoiak eta buruhaundiak Ageitik futbol zelairaino. 5,30etan iri Kirolak (Aizkolariak, Harrijaizaleak, sokatira). 7,30etan Mituak Berako Plazan. 11,30etan ifiziozko suak Futbol zelaitik. uez dantzaldia MINXORIAK LDEAREKIN.

## Abuztuak 6, astelehena

an Trikitixa eta Gaitariak Suspeeta Kaula auzoetan. 11etan IV erilari Txapelketa. 12,30etan aldoaiak eta Buruhaundiak bpol Zelaitik Herriko Plazaraino. 0etan Eskalada urbana. 7,30etan gattuak Berako Plazan. 12etatik iz alderarte dantzaldia INGU-A taldearekin.

unero LOS INCANSABLES irangak joko du eta egunero bai-eguerdian eta arratsaldean. Tx-Medinaren kuadro erakusketa ire Txokoan.



Gure Txokoako dantzariak



*Gozotegia - Ostaturia*

Eztegara 8 - Tfnoa: 63 02 54

BERA

**MATXIARENA**

Ostatu - Jatetxea  
Besta onak pasa!



Altzate 40 - Tfnoa: 63 00 33 - BERA

**MATXIARENA S.L. AUTOBUSAK**

- Bidaiak
- Zerbitzu diskrezionalak eta eskolarrak

Isabel II.a, 40

Tfnoak.: (943) 450 666 - 491 986

DONOSTIA

**LIXOIA**

Kafetegia  
Ostatua

Tfnoa: 63 01 84

BERA

# Berako bestak



ARROPA ETA OPARI DENDA

Besta  
zoriontsuak opa  
dizkizuegu

Legia 11  
T.:63 06 64 - BERA

## IZANA ILEAPAINDEGIA

Bidasoa 81, Behea  
Tfnoa.: 63 10 55 - BERA

## BIDASOA Tailerra

KOTXE BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA  
SALMENTA

Bidasoa 99  
Tfnoa: 63 02 99  
BERA

## BENTA BERRI

Besta zoriontsuak opa dizkizuegu

Ibardin gaina - Tfnoa.: 63 07 08  
BERA

## Errekalde ostatua

Besta zoriontsuak  
opa dizkizuegu

BERA

# ZAROS

MODAK  
MERKEALDIK

TFNOA: 63 11 38  
PILOTA LEKU ONDOAN  
BERA


## Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipal



ZUK, HORRELAKO  
TXARTEL BAT  
BEHARKO ZENUKE

Tartel Lider bat.  
Izpiritu gaztearekin,  
xaulia,  
erabilgarria  
eta zeure  
neurritara egina.

## GOZOTEGI-JAIONE



Itzea 3  
Tfnoa: 63 07 86  
BERA

## BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52  
Zalain auzoa  
BERA

## Drogeria MOLINERO



Paper pintatuak  
Pinturak  
Moketak  
Drogeria

Tfnoa: 63 02 40  
Eztegara19  
BERA



## GOYA

JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA  
OPARIK  
BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5  
Tfnoa: 630083 BERA

# Berako bestak

**ERLOJU ETA  
BITXIAK**



Legia 1, Tfnoa: 63 07 51  
BERA



**BOAN TAILERRA**

CITROEN Banatzailea

KOTXE BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
Herriko Etxeko Plaza - BERA

**EKAITZ**

Ostatua

Altzaten

Bestetarako prest!  
Zatoz gurera

BERA

*Laia*

**MUSIKA DENDA**

ZERBITZU  
BERRIAK

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guziak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA



**DROGERIA**

Altzate 37

Tfnoa: 630388

BERA



Altzate 6

Tfnoa: 63 05 98

**KIROLAK ZELA**

BERA

**B** RADIO  
BIDASOA

SUKALDE ALTZARIAK  
Legia. 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

TELEBISTAK  
BIDEOAK  
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA  
KONPONKETAK

**EUSKALDUNA**  
JATETXEA



Tfnoa.: 63 03 92  
BERA

**Publizitaterik onena preziorik tikienean**


Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi, Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora



## Badatozte, atarian daude, "Santiburtzioak": Herriko pestak hemen ere

ANTTON

Zerak esanen zuen bezala: dena ailegatzen da, bizi denarentzako. Pesta usaina nabaria da dagoeneko. "Santiburtzioak" atarian daude.



Abuztuaren 10tik 15era, eta inungo aitzakirik gabe, herriko pestak Leitzen. Munduko pestarik ederrenak... guretzat, gureak direlako. Ez ba!

*Abuztuak 5, Igandea:*

**Umeen eguna:**

Zaldi ttikiak, haur jokoak, txirridulariak, dantzari txikiak, trikitalariak...

*Abuztuak 10, Ostirala:*

**Pesta Bezpera:**

Ohizko etxafuego edo altsafero ofiziala, txaranga, buru-haundiak, dantza...

*Abuztuak 11, Larunbata:*

**Egun Haundia:**

Diana, entzierroa, zezenak plazan, Meza eta Ezpatadantza, Koktel IV Lehiaketa...

*Abuztuak 12, Igandea:*

Eguneroko diana, entzierroa eta zezenak... **Goizeko 11,30etan:**

Artzai zakurren Lehiaketa.

*Abuztuak 13, Astelehena:*

Ohizko diana, entzierroa eta zezenak...

**Arratsaldez:** Herri Kirolak

*Abuztuak 14, Asteartea:*

**Goizeko 11etan:** Bertso saioa, Lizaso, Euskitze, Peñagarikano eta Mañukortarekin. Ondoren Sagardoa datatzea, plazan.

*Abuztuak 15, Asteazkena:*

Dianak, entzierroa, zezenak eta futbola, batitpat, ezkondukoak protagonistak. "Aurrera"ko bazkideen bazkaria ere.

**Noski:** Egunero, ilunabarrean eta apal ondoren, dantza: NAYGI, GAU-BELA, JOSELU-ANAIAK, AKELARRE ... eta ohizko Leitze-ko INGURUTXOA plazan.

**Eta jakina:** Programatik gainera, bakoitzak bestan ezarri nahi duena.

## Osasun Kontseilua berriro bildu zen

1989ko maiatzaz geroztiz ez da inoiz bildu

MAÑONE

1989ko maiatzatik ez zen Baztango Osasun Kontseilua bildu. Or-luan, LAB sindikatuko partaide batek euskaraz hitzegin zuelako Jabier Elizalde Baztango Alkatea denak bileratik alde egin eta geroztik ez dira berriro bildu.

Bilera honetara Pedrosa zinegotzia lehendakari ordea agertu zen alkatearen ordez. Sei puntu zeuden gai ordenean: Funtzionamendurako arauak markatzea, lehenengo akta onartzea, lehen atentzio taldeko zuzendaria aukeratzea eta taldearen helburuak, 1990erako ordutegiaren aldaketa, eta erradiologi zerbitzua- ren geraldia.

Funtzionamentuari buruz luze jota bi ordu baino gehiago ez dute iraunen bilerak, parte hartze bakoitzak hiru minutokoak izanen dira eta aktak bi hizkuntzetan idaztea, izan zen erabaki zutena.

Elizondoko Osasun Zentroko sendagilea den Pedro M. Iñigo Cidriain hautatu zuten lehen atentzio taldeko lehendakari bezala.

1990erako finkatu dituzten helburuak, hauek dira bertzeak bertze: larrialdiak hobetzea, hipertentsio arteriala, diabetes mellitas eta E.P.O.C.eko azpi-programak presatzea, txertaketa kanpainaren programa eta barne arauak egitea, ingurugiroa...

Azkenik, erradiologi zerbitzuari dagokionez, berriro martxan jar dezaten, administrazioari presionatzea



Uztailaren 22an, Baztandarren Biltzarra ospatu zen

eta idatzi bat bidaltzea erabaki zuten.

### Almandotz eta Arizkungo Bozatera ura eramateko enkantea (subasta)

Ur-horniduraren berrikuntzarako lanak egiteko enkante ireki bat egingen da plegu itxiaren bidez.

Kontrata bidezko obra hauen aurrekontua 12.406.401 pezetetakoa da BEZa barne dagoelarik.

Proposamenen aurkezpena egiteko, Balleko Etxeko Erregistro Orokorra eraman behar dira, lehenbiziko enkanterako, uztailaren 31 baino lehen, % 5eko gehikuntza duen 2. enkanterako, berriz, abuztuaren 18a baino lehen eta % 10eko gehikuntza duen 3. enkanterako azkenik, irailaren 5a baino lehen.

Behin behineko fiantza finkatze-ko, Baztango Udalaren Depositarian

esku dirutan edo arauzko abalen bidez 248.128 pezeta utzi izana frogatzen duen ardezkagiria agertu behar da..

Entregatu beharreko dokumentuak; baldintza administratibo partikularren pleguan daudenak.

Proposamenak jendeaurrean irekiko dira, aurkezteko epea akitu ondoko lehenengo laneguneko eguerdian.

Baldintza administratiboen plegua eta obraren proiektua lizitatzailen esku egonen dira Elizondon dagoen Balleko Etxeko bulegoetan nahi izanez gero azter ditzaten.

### Abuztuaren 5ean Amaiurko Pilotalekua inauguratuko da

Bezperan Gau Pasa Izanen da. Igandean, berriz, pilota partiduak eta zikiro jatea.

## Pilota jokoak indartu nahian

Beti Aintzina Taldea saiatzen ari da


KORO IRAZOKI

Azkeneko urte hauetan alderdi huntan esku pilota jokoak galtzen ari zela eta Iparraldean sortu da berriki "Beti Aintzina" Taldea joko huni indar berria emateko. Talde honek prestatu eta entrenatzen ditu 8 urte-tik gorako haurrak eta ondoko herrietakoekin partidak muntatzen ditu.

Holaxe ditugu talde hortan sartuak ere herriko bartz mutiko: Joseba, Iban, Iker, Mikel eta Joxe Fermin. Asteazkenetan joaten dire Dantxarineko pilota lekura eta han Jean Michel Iturbidek prestatzen ditu Ainhoako ekipan.

Orain herriko bestak ailegatzeko direla eta geronek ikusteko aukera izanen dugu nolako pilotariak sortzen ari diren. Ama-Birgiñaren egunean aituko bait dire txuriz jantziak jendearen aurrean beren joko hobereana eskeintzen.

Hala ere, *ttipi-ttapatik* animatzen ditugu inguruko mutiko koxkor guziak pilota jokoa hastera afiziona baldin badute; horrendako aski dute telefono hauetarik batera deitzea: 07/3359 - 29 91 16, 29 96 70 eta Jean Michel Iturbidez galde-



tu (Hotel Ur-Hegian - AINHOA).

Aspaldi huntan komentatua ginuen bezala, azkenean Herriko Etxeko posadako obrak egiten ari dire.

Ekainaren 25ean hasi eta handik 15 egunetara ia bukatuak zizuten. Hau da egin dutena: bi komedoreak bat egin tabikeak botata eta gero zurezko bigak atera; sukaldea ere den-dena berritu eta sanititateak eskatzen duen bezala jarri, komunak ere berdin; eta azkenekoz hozkailuko kamara eta telefono kabina bota.

Obrak bukatzeko gelditu dena zera da: ostatua orain den tokitik

ekendu dena komedorea egiteko eta kanpoko aldean jarri, bainan hau dena egiteko denbora aunitz behar dela eta orain, udan, sasoina txarra delakoz utzia dute negu aldera egiteko.

Orain Herriko Etxeko terrazaren azpian kanpoko-komunak egiten ari dire eta abuztuaren lehenbiziko egunetakoz bukatuak izanen omen dituzte.

# IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA  
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA  
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

*Michel Guerendiaín*

SARA - LAPURDI



**EZKONTZAK**

Angel Salaberria Eskudero eta  
aione Orbegozo Gelbentzu,  
Goizueta eta Oiartzungoa, uzta-  
ilaren 8an.

Jesus M. Villabona Olano eta  
M. Jesus Rivas Alonso, Leitza-  
koa Beriangoa, uztailaren 28an.

Jose Migel Gonzalez Beraza eta  
Inmaculada Masa Ocampos,  
Leitza eta Berrobikoa, Uztailaren  
28an.

Fco. Javier Apezetxea Aizpurua  
eta M. Jesus Larrazte Opoka,  
Goizueta eta Leitzakoa, Uztaila-  
ren 28an.

Juan Ramon Eizagirre Azpio-  
lea eta M. Jose Sagastibeltza Sa-  
gastibeltza, Usurbil eta Leitza-  
koa, uztailaren 28an.

Isidro Jose Mariñelarena Ola-  
no eta Edurne Mendizabal San-  
pedro, Leitza eta Zeraingoa, uz-  
tailaren 28an.

Luis M. Lezea Zubillaga eta M.  
Consuelo Gragirena Mutube-  
rria, Berastegi eta Leitzakoa,  
abuztuaren 4ean.

**JAIOZAK**

Anais Gorosurreta, Sarakoa,  
uztailaren 5ean.

Sonia Gaintza Goinetxe, Etxa-  
lar, ekainaren 22an.

Ainhoa Ubiria Sarasola, Lesa-  
kakoa, uztailaren 25ean.

Egoitz Zubiri Gaztelumendi,  
Goizuetan, ekainaren 19an.

Amaia Jaka Apezetxea, Goi-  
zuetan, ekainaren 24ean.

Unai Loiarate Antsa, Goizuetan,  
uztailaren 2an.

**HERIOTZAK**

Basilio Juanikotena Telletxea,  
Beran, uztailaren 12an, 79 urte.

Joakin Aranguren Diez, Lesa-  
kan, uztailaren 21ean, 65 urte.

Valeriano Etxeberria Ameztol,  
Igantzín, uztailaren 18an, 79 urte.

Francisco Retegi Petrikorena,  
Eratsunen, uztailaren 1ean.

Miguel Lasarte Garcíarena,  
Ezkurran, uztailaren 24ean, 87  
urte.

Pedro Lakanbra Legareta, Eli-  
zondon, uztailaren 24ean, 57  
urte.

Juana Gorostiaga Ezkaba,  
Eratsunen, uztailaren 12an, 75  
urte.

Gertrudis Azkona Etxeberria,  
Legasan, uztailaren 11ean, 89  
urte.

Ramona Zubieta Astibia, Goi-  
zuetan, ekainaren 21ean, 88 urte.

**ARRATZUBI  
ARDOTEGIA**

Tfnoa.: 63 72 79  
Bittiria karrika  
LESAKA



Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

**SASKI ZAR  
OSTATUA  
LESAKA**

**BERAKO  
EUSKALTEGIA**

Tfnoa.: 63 77 96  
**Bestetan ere euskaraz!**

## Belateko tunelaren proiektuaren erredakzioa martxan

Duela hilabete batzuk proiektu hau zela eta, agertu genuen aldizkari honetan Belateko tunelaren aurreproiektua eta kontutuan hartzen ziren posibilitate diferenteak. Orain dirudienez behin behineko proiektua egingen da.

Ekainaren 20an Nafarroako Boletinean agertu zen proiektu hau erredaktatzeko konkurtso deialdi bat, orain berriz, lan horren kontratazioa.

Euroestudios S.A. enpresak burutuko du proiektuaren erredakzio hori 79.920.782 pezetetako aurrekontua izanen duelarik.

Proiektu honetan Arraitzeko Bentetatik Donezteberaino doan



*Ikusteko dago proiektuak ingurugiroan izanen duen eragina*

errepide edo karretera zatia eta bertan egingen den/diren tunelen

estudioa egin beharko du enpresa honek.

## Belate - Endarlatsa - Dantxarinearako errepidea moldatzeko, EAK mozioa aurkeztu Udaletan

Kontutan izanik errepide-komunikabide txarrak direla, BAZTAN-BIDASOA-MALERREKA eskualdeko ekonomiaren egoera larrian aurkitzearen errudun garrantzitsuenatariko bat, eta arlo hori hemen tradizioz atzendua egon denez, zera da gure eskaera —dio mozioak—: *Akordioa hartzea Nafarroako Gobernua behartzeko ondoko eskaerok betetzera:*

1.a: *Endarlatsa eta Behobia arteko arazoari irtenbidea emateko harremanetan jartzea erakunde egoekien:* Gipuzkoako Foru Aldundia,

Euskal Gobernua, etab., tarte honen jabea Nafarroako Gobernua bait da, nahiz eta Gipuzkoan kokatua egon.

Zati hau botila lepoaren antzera gertatzen da, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko komunikabideak itto egiten dituelarik, eta honek ondorio txarrak ditu gure eskualdearendako.

2.a: *Errepideen Plangintza Orokorrean Belate-Dantxarinea-Endarlatsa arteko zatiei ezarritako epeak laburtzea.*

3.a: *Belateko tunelaren proiektuari dagokionez lehen bait lehen*

egitea bere idazketa, erakusketa eta izendatzea.

Aipatutako ekintza guzti hauek funtsezkotzat ematen ditugu gure eta Nafarroako ekonomiaren garapen on batetarako —darrai mozioak—.

Oharra: Mozio hau eskualdeko udal guztietan aurkeztua izan da eta ekainaren 23rako Beran eta Donezteben onartua zegoen (ahobatez), gainerakoetan bilera izatearan zain zegoelarik.

# Lesakako Laminazioetan, euskararen egoera aztertzen



Euskal Herriko bertze hainbat lantegitan bezala, erdara nagusi

**S**IADECOK egin duen ikerketaren arabera Laminazioetako langilegoaren %72,6a euskalduna da, baina lantegian euskararen erabilera hagitz murrizta da hitzegiterakoan, batez ere harreman horiek zuzendaritzarekin direnean. Harreman horiek idatziz direnean berriz erran genezake euskararen presentzia hutsera bihurtzen dela, idazki guziak —txartelak, oharrak, ea.— erdaraz agertzen bait ditu. Bertzalde, zoritxarrez hauxe da Euskal Herriko lantegi gehienetako egoera. Eta hemen kontraerran nabarmen bat agertzen da: alde

batetik gure seme-alabak euskaraz egiten ari dira, hein handi batean euren ikasketak eta lanerako adinera iristen direnean eta lantokieta-  
ra sartzen direnean, lehen aipatutako egoerarekin aurkitzen dira; hau da, ezin dutela euskara erabili lan harremanetan.

Oraindano luzatu dizkizuegun arrazoi hauen-  
gatik eta zenbait eztabaida eduki ondoren, Lesakako Laminazioetako lankide batzuk egoera hau aztertze-  
ko eta irtenbide bat bilatzeko asmoz, talde bat sortzea erabaki genuen. Gure ikuspegi,  
asmo eta helburuetariko batzuk ondoren adierazi-  
ziko dizkizuegu:



## Historia pixka bat

Gure lantegiko euskararen aldeko lehendabiziko mugimenduak, 1977an egin zen komenioan hasi ziren. Urte horretan zera lortu zen:

1.a.- Enpresak ateratzen dituen oharrak eta idazkiak euskaraz ere argitaratzea.

2.a.- Hitzarmenaren edo komenioaren artikulua euskarara itzulitza.

3.a.- Euskara ikasi edo hobetu nahi zuten langileei, matrikularen kostua eta materialeak ordaintzea. Horretarako enpresak diru-kutxa bat sortu zuen. Modu guzitan, ikasketak lan ordutatik kanpo eginen ziren.

Une honetan egoera horrela dago: Enpresak lehenengo puntua ez du betetzen; bigarrena modu txarrean, ia zko komenioa urte bat igaro ondoren eman bait digu euskaratua.

Bertzalde, hasiera batean jende mordoska apuntatu bazen ere euskara ikastera edo alfabetatzera, azken urte hauetan aunitz urritu da kopuru hori.

## Helburuak

Nagusiena, zera izanen litzateke, lantegian gure hizkuntza sartuta dagoen zulo horretatik ateratzea eta normalizaziorako bide bat irekitzea.

## Proposatzen diren pausoak

1. • Enpresak komenioaren arabera, bete behar dituenak exijitza, hau da, langileei zuzendurik doazen oharrak eta idazkiak eta hitzarmena bera ere, euskaraz argitaratzea.

• Lantegiko errotulazioa euskaratzea.

• Euskara ikastaroen matrikulazioa eta materialeak ordaintzeaz aparte, bertze konzeptu batzuetara zabaltzea —kontzientziazio kanpainak egiteko, bertso ikastaroak ordaintzea,



Ohar eta idazki guztiak erdaraz egiten dira gaur egun

txandaka edo turnoka dauden langileei ikastaroak egiteko erreztasunak ematea, e.a.—.

2. Talde honen ustez lehen aipatutako eskakizunetaz aparte, bertze pauso bat eman beharko litzateke *Plangintza orokor* bat martxan jartzea derrigorrezkoa dela iduritzen zaigu.

Plangintza honekin lortuko nahi genukeena zera izanen litzateke:

• Lantegian euskararen presentzia bultzatea.


• Langilegoari euskara ikastera eta hobetzera mugiaratzea.

• Giro euskalduna sortzea lantegian.

## Plangintza hau gauzatzeko baliabideak

Hasieran azterketa bat egin beharko litzateke; SIADECO edo euskara lantzen ari diren bertze erakunderen baten laguntza beharko genukeelarik. Eredu honetan dauden Euskara Zerbitzuen laguntza, Nafarroako Gobernuko Euskara Zerbitzuarena, Enpresako Zuzendaritza-rena, Talde Sindikalena..., eta nola ez, enpresa komitearena.

Laburki adierazita, hauek izanen lirateke Talde honen asmoak eta nahiak. Hortaz, badago zer eginga, eta euskara, lantegian ere, gurea izatea nahi baldin badugu, lanari ekin beharko diogu.



Plangintza bat martxan jartzea derrigorrezkoa litzateke

# Paul Dutournier:

## «Nere idurikoz printzipala da demostratzea gure anaitasuna ez dela sekulan hautsi behar»

Berekin eleketan aritzea, bat bertzearen gibeletik elditu gabe, hamaika ixtoriorren berri izaitzea da. Gazte gazte denborako kontuekin hasi, Luis Mariano espetsua Sara aldetik ibiltzen zenekoarekin segi eta zkenaldiotan Villoslada aferaren inguruan bizitzea bertutatu zaizkion esperientzia lazarriekin bukatu artean... han hemenka ibili gara... Gestapoa, "gaumena" inguruko pasadizoak eta 34 urtez Sarako alkate izandako esperientziak ere gogora ekarrazteko aradarik ez zaigularik faltatu.

Egia erran, zaila izan zaigu solasaldia gai bakar batean zentratzea... ezinezkoa, hobeki erranda. Nonbait, bizitzan gertatu ohi den bezala, iraganeko gertaerak eta gaur egunekoak, alde batekoak eta bertzeakoak nahasian etorri zaizkigu, batak bertzean iraginez etenik gabeko kate bat osatuz.

Izan ere, maiatzaren 16an lautano goi urte bete dituen Saratar honek, gogor iharduten du oraindik ere marat eta honat mementu bat ere gelditu gabe. Guk geuk, Donibane Lohitzunen gertatzen ari zen Pottoka erakusketa batean topatu genuen, Luis XIV plaza bazterreko mahai batean bertze journaliste frantzes batekin ari zela solasean.



**T**xanda ailegatu zaigunean, alkate izan zeneko garaiaz galdegin diogu eta... erresumen bat egin beharko nuke hor, bertzenaz hiru edo lau egunetako izanen baitut" erantzun digu Paullek. "Saran, nere familiaiko zortzigarren alkatea izan naiz eta bertze sei urtez alkate-orde. Berrogei urte guzira. Bertzalde, oraintxe bertze honi kontatzen nion bezala, bederatzi urtez izan naiz zera... Lapurdiko Biltza-

rraren Lehendakari. Lehen, erregen denboretan ere, bazegoen hori. Ez dakit zenbat biltzen ziren orduan, dena den, egiazko demokrazia zen, zeren, hiru bilkura egiten ziren eta diputatuak gaten ziren Parisa. Ez zen izugarria izan bainan... bazuen ganorea, zeinta, gure prolemak eta desioak biltzen ziren. Jakobismo ergel horiek honat ailegatu zirelarik, ez zuten entenditzen ahal nola eskualduna demokrata izaten ahal den eta denbora berean, Elizara gan. Ho-

lako astokeria...! Bakar bakarrik apaiz batez, Senperekoak, Larratxipi zuen izena, bozkatu zuen konstituzioaren alde. Ohoratzeko, alkate egin zuten apeza eta Sarari Bortz kilometro muga kendu Senpereri emaiteko. Geroztikan, guk ez dugu kapitaltzat Ezpeleta edukitzen, Senpere baizik. Orduan... zera erraiten dut nik... obligatu digute Baztan eta Bortziriekin biitzera nahitanahiez. Horretaz aparte badakizue Sara arrunt sartua dagoela. Edozein gisatara egia da. Ez da dudikan. Nere familian berean erdiak baino bertze aldekoak dira... hangoak eta hemengoak esposatzen ziren... esplikatzen digu Paulek irri maliziotsu batez "ziren" erranez... berak ez omen du esposatzeko paradarik izan eta.

Baina harreman hori, ez al zen indartsuagoa izan lehen orain baino? Iduritzen zait, sekulan baino indartsuago hasi dela orain berriz" erantzuten du berehala. "Azkeneko bestetan berean ikusi dut. Zuek etortzen zaizte, Lesaka erdia etortzen da Sararat, enfin... horrela da. Gauza polita da. Fazeriak bera... ez al da gauza gaitza!

Honetan gaudela, nahi gabe, arrunt loturik dagoen bertze gai batean sartzen zaigu Paul... Badakizu aski ongi Etxalarren



«Jende aunitzen pentsamoldea karlistek zuten bera da, dudarik gabe» dio Paul Dutournier-ek

eta Saran eta... ez da sekulan kontrabandista erran. Hain da normala, erraiten dela gauzekolana. Edozeingisaz, Churchill-ek erran zuen modura Sarara etorri zenan, ...«azkenean, segur naiz euskaldun kontrabandistak direla Europako Federazioaren bultzatzaileak...» zioen Churchill-ek... eta egia da. Kontrabandea egiten bada sano ki guk egiten dugun bezala, gauza sanoa da. Zorigaitzez, erran beharra da badela droga ere, segur, baina ez da zenbait tokitan egiten gauza hori. Dena den, ez da dudikan kontrabandoaren egun ederrenak pasatu direla, izan ere, mugen desageretzearekin eta Europako merkatu bakarrarekin.

Bainan mugaren alde

batetik bertze ere dira bakarrik aretzeak pasatu... polizien atzaparretatik eskapo dabilzan errefuxiatuak ere hor ibili dira edota... dabilza oraindik... elkar laguntza bila. Halaxe da. Laguntza izigarria izan da. Norbait behar zelarrik salbatu ez da inoiz galdetu ezkerrekoa, eskuinekoa edo erdikoazen. Serbiziala izan behar da beti gauza horietan. Badakizu, gauze ez da sekulan gaketu behar behereko atea, porsiakaso norbait beharretan baldin badago. Orain bertan, Sarako apeza eta nerone gauze eraman gaituzten... gaitza izan da. Ez zarete ahalke, erraiten nien nik. Zenbait detale... ez ditut sekulan ahantziko.

Bertzalde, gaur egun

Paul Dutournier:

«Hemen eta Nafarroan, euskadi hitza berak izitzen du jendea, ez behar bada Euskal Herria hitzak»

zenbait Elkarteren buru izateaz aparte, Donostian "Tambor de Oro" delakoaz ohoratu duten Iparraldeko bakarradugu. Goxotasunez gogoratzen du...ohoratu nindutenean, hantxe zegoen On Migel de Barandiaran gaizoa, ni sartzerakoan txapela kentzen zuela... «faborez On Migel —erran nion— etzazula txapela hori kendu neri!» eta 40ren bat kazetariren aintzinean erran zuen Barandiaranek... «a este señor, hay que nombrarle alcalde de euskadi». Horiek ez dira ahazten ahal! Segurki egin ditugu fabore batzuk bainan... neri ere egin nauzkite. Orain bertan bestetan eta... inguruko herrietako alkateekin egiten ditugun bilkuretara gonbidatzen naute. Xoragarria da... gehitzen du xamurki Paul-ek. Gero artio Paul, ez adiorik!

JOXEMANUEL IRIGOIEN



# Aintzina darrai Herri Kirol Txapelketak

Abuztuaren 15ean, Zubietan izanen da saioa eta irailaren 2an, Donezteben, «Zazpi Probintzietako Herri Kirol Txapelketa»

Uztailaren 15ean Sunbillan ospatu zen txapelketa honetako lehenengo saioa, hasiera harrakastatsua gertatu zen benetan, jende ugari bildu zen goizeko 12etan Sunbillako pilotalekura Amaiur, Arizkun, Narbarte eta Sunbillako taldeen indarrak eta abileziak ikusteko.

Saioa hasi aintzinean Sunbillako trikitrixak eta dantzariak giroa berotu zuten txapelketari hasiera ezin hobea eskeiniz, baskulan taldeen eta laneko aparaxuen neurketa egin ondoren proba konbinatuari hasmenta eman zitzaien, hiru serietan egin beharreko lanari gogor ekin zioten kirolariak beraien indarrak norgehiagokan neurtuz: kozkor biltzea, txingakin, aizkoran, zakuekin laisterka eta arpanean izan ziren jokaturako modalitateak.

Sunbilla eta Amaiurren arteko berdintasunak emozioa eman zion probari, baina azkenean Sunbillakoak



Sunbillan egindako Topaketan, herrikoak atera ziren garaile

nagusitu ziren minutu t'erdiko tartea Amaiurkoei kenduz, hirugarrena NARBARTeko taldea izan zen eta azkenekoa Arizkungoa —ikus denborak laukian—.

Ondotik sokatirako proba ospatu

zen lau taldeen artean denak denek kontra aritu zirelarik. Proba honetan ustekabe frango gertatu zen, gaur egun Nafarroako txapelduna dugun Amaiurko taldeak egurra hartu zuen Sunbillako eta Arizkungo taldeen-

## BAZTAN - BIDASOA - LEITZARANGO I.go KIROL TXAPELKETAREN EMAITZAK (Proba Konbinatua)

TALDEAK	1.go Txanda						2. Txanda						3. Txanda						OSOTARA
	Kozk	Txing	Aizko	Zaku	Arpan	DENA	Kozk	Txing	Aizko	Zaku	Arpan	DENA	Kozk	Txing	Aizko	Zaku	Arpan		
Arizkun	1'20"	24"	3'14"	1'05"	3'07"	9'10"	1'34"	26"	7'19"	1'	3'09"	22'38"	1'25"	36"	5'24"	1'07"	2'54"	34'04"	
Amaiur	1'23"	24"	1'30"	1'	1'25"	5'42"	1'42"	24"	2'14"	1'13"	1'25"	12'40"	1'34"	23"	1'41"	1'15"	1'32"	19'06"	
Sunbilla	1'22"	22"	1'03"	1'07"	1'23"	5'31"	1'34"	23"	1'19"	1'04"	1'39"	11'30"	1'30"	21"	1'22"	1'11"	1'41"	17'35"	
Narbarte	1'21"	22"	2'37"	1'	2'22"	7'42"	1'33"	24"	3'44"	1'	2'27"	16'50"	1'23"	30"	3'04"	1'06"	1'56"	24'57"	

Herria: Sunbilla Eguna: 1990/7/15 Ordua: Eguerdiko 12etan

Puntuaketa: 1.- Sunbilla (4 Puntu); 2.-Amaiur (3 Puntu); 3.-Narbarte (2 Puntu); 4.-Arizkun (Puntu 1)

Epaileak: Mikel Ibarrola, Mattari Altzuarte, Joxe Urroz, Juanjo Ibarra, Juanjo Neol.

gandik, lau tiraldiak galdu bait zituzten Narbartekoen aurka bakarrik irabaziz.

Horrela bada lehenbiziko saio honetan —liga sistema da— puntuak etari dagokionez gisa honetan gelditzen da: 1. Sunbilla 8 puntu —4 proba konbinatuan eta 4 soka tiran—, 2. Amaiur 5 puntu —3 proba konbinatuan eta 2 soka tiran—, 3. Arizkun 4 puntu —1 proba konbinatuan eta 3 soka tiran— eta 4. Narbarte 3 puntu —2 proba konbinatuan eta 1 soka tiran—.

Baztandarren Biltzarra egunean ere, exhibizio bat izan zen 1.000 lagundik goiti ikusten egon zirelarik. Ikustekoa da proba honetan izan ziren gora beherak, modalitate batean onak badira denbora poliki irabazten da baina bai aldrebes ere. Horrela Ultzamako taldea irabazlea gertatu zen, ondotik Sunbillakoa gero Zubietakoa eta azkenik Leitzakoa.

Herri Kirol Txapelketa hau aintzinat jarraitzen duen bitartean, gertakizun ezin hobea heldu zaigu gainera: Irailaren 2an Donezteben *Zazpi*

*Probintzietako Herri Kirol Txapelketa* ospakizuna. Txapelketa honetan zazpi probintzietako kirolari hoberenak ariko dira hainbat espezialitatetan bakoitzak bere probintzia ordezkatzeko, goizeko 8etan hasi eta arratsaldeko 8ak arte iraungo duen txapelketa hau ikusteko aukera ederra dugu Baztan Bidasoako jende guztiok, ez baitugu bertze 7 urtez hain hurbil ikusteko aukerarik izanen.

MATTARI

## Jose txo Ezkurra 1. Memoriala

M. IBARROLA

Malerreka Pilota Eskolak orain dela 3 hilabete Malerrekako esku pilota finkatzeko, Jose txo Ezkurra 1. Memoriala antolatu zuen. Maila ezberdinetan 85 bikotek izena eman zuten. Malerrekako Pilota Eskolan dauden 60 mutikoen parte hartu dute. Partiduak Malerrekako pilotaleku guztietan jokatu dira. Ekainaren 29an, hau da, San Pedro egunean, Doneztebeko Bear Zanan, prebenjamin, benjamin, alebin eta herriko senior mailako finalak jokatu ziren: *Prebenjamin mailan* (6-8 urte) Otero- Mangado (Malerreka) 16, Olazar-Urrutia (Malerreka) 7, *Benjamin mailan* (9-10 urte) Mitxeo-Urrutia (Malerreka) 6, Plaza-Bidegain (Baztan) 18, *Alebin mailan* (11-12 urte) Zelaie-ta-Etxabarri (Baztan) 12, Kari-kaburu-Altzugarai (Baztan) 18, *Herriko Seniorrak* Odriozola-San Miguell 17, San Miguell-Luis Martin 22.

Jende aunitz partiduak ikusten eta CANeko zuzendaria, Jabier Almandoz, CRNeko Jabier Ostiz



Finalistak trofeoak hartu ondoren

eta Doneztebeko alkatea Antton Apeztegiak, trofeoak banatu zituzten. Oraindik ez da akitu txapelketa: infantil, jubenil eta afizionatuak jokatzeko ari bait dira.

### Iturengo I. Biatlona bikoteka

Malerrekako Kirol Bulegoak Udalek antolaturik ospatu zen uz-tailaren 14ean I. biatlona hau. Oso maila ona ikusi genuen. Oinez egin

beharreko lasterketa 3,5km zituen eta bidea oso gogorra zen, tririndulariei dagokionez, bertze 3,5km egin behar izan zituzten Ameztia-riar igoz. Lehen 3 bikotekak hauexek izan ziren (lehena lasterka eta bigarrena txirindularia): 1.- Berako Juan M. Irazoki 15'45" eta Iñaki Trantxo 27'15"; 2.- Lesakako J. Calvo 16'55" eta Aitor Igoa 11'12"; 3.- Lesakako P. Pikabea 17'30" eta Iñaki Irigoien 12'12".

**ETXEBIZITZAK**

-Lesakan denda bat transpasatzen da Bittirian. Tfnoa. 637404

-Lesakan lokal bat transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637466

-Etxe edo baserria erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Antonio Elizondo Tfnoa: (948) 59 40 54

-Partikularretik partikularre- ra, bizilekuz aldatzeagatik premiaz- koa da pisua saltzea. Amaur sukal- deen goian. 594054.

**LANA**

-Iruñean neska euskalduna be- har dugu Iraitetik aurrera orduka e- txeko lanak egiteko eta haur bat zain- tzeko. Telefonoa 255121. Amaia Zu- bieta.

-Elizondon, ikasle bikainak OHO (EGB) klaseak emateko eskeintzen dira. Tfnoak. 581212-580772

-Solfeo klaseak emanen nituzke udan, Iturenen. Interesatuak deitu 594249 telefonora.

-OHO klaseak ematen ditut euskaraz. EGA titulua daukat. Tfnoa. 637136 Lesaka.

-Lehenbiziko eta zortzigarren maila arteko haurrei klaseak emate- ko prest nengoke, uda aldean Iture-

nen. Nahi dutenek dei dezatela 59 44 39 telefonora. Ituren.

-Bi neska gara eta herrietako festetan lan eginen genuke: taberne- tan, jatetxetan, etxeko lanetan, e.a. Deitu telefono hauetara: 510220, 610789

-Frantzes klaseak Silvia Mazi- zior-ekin. Tfnoa: 630108

-Neska euskaldun bat behar da Etxalarren, haur bat zaintzeko. Irai- letik aintzinerara. Deitu 9etatik 10eta- ra 635150 tfnora.

**SALEROSKETAK**

-Ordenadore polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. 50.000 pzta. Tfnoa: 631188

-Idazmakina elektronikoa salt- zen da. CANON markakoa. Deitu 631188 telefonora.

-Denda batetan paratzeko moduko estanteak, mostradoreak, e.a. saltzen dira. 637404 Lesaka.

-R5 GTL NA-2868-N matrikula- rekin, salgai dago. Interesatuak dei dezakezue 635126 tfnora eguerdian 1.30etatik 3etara edo 7.30etatik ain- tzinera.

-Bizikleta bat erosiko nuke. Bizikleta arrunta, neskentzat, oza eta merkea bada hobe. Zuk baldin badu- zu, Zubietako tfno. honetara dei ezazu: 59 46 29.

-Artzain zakur beltza saltzen dut. 15.000 pzta. 594054.

-Mountain bike Peugeot VTT Ocean Spres saltzen da. 60.000 pzta. Tfnoa: 63 07 51.

-Akordeoi kromatiko bat salt- zen da. 120 bajo, 13 erregistro esku- bian eta 7 ezkerrean. Soprani. 943 - 675762 tfnoa.

**DENETARIK**

-Ekipoak alokatzen dira Uda- lentzat, bertsolariantzat, elkarteent- zat, mitinetarako eta abar. Laia mu- sika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

-Trikitixa eta panderoa jotzen ikasi nahi al duzu? Guk irakatsiko dizugu Sunbillan. Josune eta Ain- hoia. Deitu aste tartean (943) 625048 telefonora.

**HARREMANAK**

—Nere Lesakako familia eta la- gun guztiei: Eskerrik asko bi urte zoragarri hauengatik. Zuetaz beti oroituko naiz. Laister etorriko naiz. Ikusi arte! Kattalin Fagoaga.

—Lesakako bestetan hiru muti- kok ahandi dute kantzontzilloak gure autoan. Nahi baldin badute deitzen ahal dute Sarako Herriko Edantegi- rat. Aupa Sara (Martine Solange Aña Mariren partez).

ORRIALDEHONETAKO IRAGARKIAK DEBAL- DEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

.....

.....

.....

*ttipi-ttapa*  
Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

*ttipi-ttapa* ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

*ttipi-ttapa*  
Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188







*Berako Bestak*

*Goiko Argazkia*

Guretzat hain bereziak diren egun hauetan,  
herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

**Besta Zoriontsuak!**

**GANI**

**NAFARROAKO**

**AURREZKI KUTXA**